

HARA!

ERROTAK



BAKARRIK

Oroimenak kartoizko kutxetan gordeta. Barruan zer dagoen jakin arren ez dugu begiratu nahi izaten, beldurragatik agian. Norberak bakarrik egin ditzakeen gauzetan, norbera da lagunik onena eta etsairik handiena. Pop ukituko abesti intimista da. Akorde minor sinple batzuk, ahots melodia triste bat eta horien arteko uztarketak sortutako emozioa dira kantu honen abiapuntua.

IHESALDIA

Zein gogorra izan behar duen, une batetik bestera soinean daramazunarekin zure sorterrria utzi eta alde egin behar izatea. Iraganean entzundako talde stoner-en eragina dago (Queens of the Stone Age, Kyus, Hermano...). Errepi-dea, basamortua, gasolindegia bakartiak eta legearen inperioaren jazarpena dira abesti honek burura dakarzikidan irudiak.

DESIKASTEN

Zenbat ideia oker sartu dizkiguten buruan eta oharkabeen erreproduzitu. Batzuetan haietako batzuk baztertea ez da hain zaila. Beste batzuetan, ordea, ideia edo balore injustu horiek, norbera egoera hegemoniko batean ipintzen dutenean, askoz ere zailagoa izaten da abantaila edo pribilegioei uko egitea. Errealitate ekonomiko, politiko eta kultural baten ondorioa gara, kasu batzuetan indar posizio batean ipintzen gaituena eta beste batzuetan lokatz artean. Punk-rock eta grunge taldeen eraginez sortutakoa da.

ERROTAK

Azken aldian askotan aipatzen den Antonio Gramsci teoriko marxista italiarrak zion, zaharra inoiz hiltzen ez zelako ez zela jaiotzen berria. Gaur egun Euskal Herrian bizi dugun egoerak hori dakarkit gogora. Ez atzera, ez aurrera, interregno batean ainguratuta gaude. Geldirik dagoen urak ez baititu mugitzen errotak. Entsegu batean oharkabeen sortu genuen. Gitarra jotzeko erabiltzen dudana tramankulu digital batean "Bowie" idatzi nuen zerbaitek artista hori gogorarazten zidalako. Abestia bidali nion lagun bati eta hark Bowie-ren "Heroes" abestia gogoratzen ziola esan zidan.

EGUTEGI MADARIKATUA

Abesti elektronikoa bat izan zitekeen baina geure terrenora eraman genuen. Izan nuen gertaera batean du oinarria letrak. Birziklatzeko edukiontzia batzuen ondoan aparkatzen ari nintzela Eibarren, gizon bat ikusi nuen bere gorputz erdia edukiontzia sartuta zuela, ahora eramateko edo janzteko zerbaiten bila edo. Ni nire kontraesanen bila nenbilen, gizonak bere burua edukiontzitik atera eta buelta eman zuenean, soinean Gure Esku Dago herri mugimenduaren kamiseta bat zeraman. Ez dut uste mugimendu horrekiko zuen atxikimendu ideologikoarengatik izango zenik. Egutegiko egun bakoitza kalbario bat da beraiantzat.

Hara! taldean (2016ko martxoa, Ondarroa) aldaketak egon dira. Jon Kirru Iparragirre da gertatzen bakarra, baina soinuaren arima mantentzen du Iparragirrearen sormenarekin. Ekipo berria antolatu du Hara! taldeak musikaren bidezidor berberetik bidaiatzeko (Jon Kirru Iparragirre, Bolin Lazkano eta Mikel Arrieta). Hara! taldeak berriro bigarren diskoan (Errotak) aurpegi bikoitza erakutsiko digu. Rock indartsuak, hard-corea, metala, punka, stonnerra eta heavya izango ditu bideko lagun zaratsatu eta bizi. Bigarren alderdia da poparen olatuaren babesean txanpa hartzen duenean Hara! taldeak. Hunkigarriak bilakatzen dira, intimistak, tristeziaren ispilu apurturen begira ea zer irudi eta soinu entzuzera kondenatuko gaituzten zain. Errotak abestian tentsio lasaia entzun daiteke. Indarraren goxotasuna pop bilakatuta da malenkonioa suspergarriarekin, David Bowieren aztarna leloan baina ez da "Heroes" kantuen bertsioa nahiz eta antzekotasun handia dagoen. Taldeari Kantua grabatu ostean esan zaio taldeari harekin duen antzekotasuna. Baina ez dago konparaketara joateko asmorik. Hara! taldearen "Errotak" hausnarketa politiko handia izan dezake letrari ongi erreparatuta. Pop amerikarraren zurrumbiloan ere dabil "Bakarririk". Potentzia barru-barruko geltokian aterpe hartuta. Beti izan daiteke garaia askatasunaz hausnarketa egiteko, pentsatzea librea da. Baina uste dugu dena benetan bukaturik dagoela errotaren hasieran gaudenean?

TENNESSEE

Gara batean Keike taldearekin egiten genuen bezala, zati indartsuak eta barealdiak uztartzen dira. Hard rock eta heavyaren eraginak nabari dira. Hitzak Tennessee Williams-en "Cat On a Hot Tin Roof" (1955) antzerkirako egindako liburuaren irakurraldiaren ostean atera ziren. Geroago jakin nuen liburu hau Richard Brooks-ek, Elizabeth Taylor eta Paul Newman aktoreekin, izen bereko pelikula egiteko erabili zuela (abestiaren zati batean filmeko elkarrizketa bat dago sampleatuta). Liburuan, Williams-ek, heteropatriarkatuari eta garaiko jendarteari kritika zorrotza egin zion, beronen hipokrisia eta itxurakeria agerian utziz. Homosexuala, komunista eta drogazalea zen Williams, beraz, jendartearen arau moralak kritikatzeko arrazoirik ez zitzaion faltako.

OKER

Tempoari dagokionez abestirik azkarrena da. Gitarren soinua astuna da, tonu bat beherago baitaude afinatuta. Hard core melodikoaren eragina dauka, baina soinu metaliko batekin. Abestiak, bai musikan bai letretan, amorrua dauka. Ustetaz azpian dagoenak, ustez goian dagoenaren kontra egina. Erasoen aurrean, erantzutea ez da eskubidea, obligazioa baizik.

ZERTARAKO HITZ EGIN

Barealdia eta ekaitza nahasten dira. Abestia metalaren eremuan mugitzen da. Baina ez da ohiko metala, Deftones, Tool eta Incubus bezalako taldeen eraginekora baizik. Abestiak etsipenetik eta geure buruarekiko errukitik alde egiteko aldarria egiten du. Gauza batean sinesten baduzu, aurrera eraman behar duzu.

2018ko maiatza eta ekaina bitartean grabatu du Axular Arizmendi soinu teknikariak (AME Estudioa, Mutriku). Masterizazioa: Simon (Basalte estudioa, Paris). Bateriak Aitor (Bolin) Lazkano Aristondok grabatu ditu. Gitarrak eta ahotsak Jon Kirru Iparragirre Burgoak. Baxuak grabatu dituzte Iñaki Urrutia Urangak (Ihesaldia, Errotak eta Bakarririk) eta Jon Kirru Iparragirre Burgoak (Desikasten, Tennessee, Oker, Egutegi Madarikatua, Zertarako hitz egin). Leire Urrutiak diskoaren azala eta diseinua.

Aitor (Bolin) Lazkano: batera

Mikel Arrieta: baxua

Jon Kirru Iparragirre: gitarra eta ahotsak

ritxi aizpuru + hara! (2018ko urriaren 18an)

